



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2020KO EKAINAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2020ko ekainaren 30ean, arratsaldeko 16:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Ricardo Arangoa, Xabier Azpiroz, Santos Etxegia eta Julen Beunza

BERTARATU EZ DIRENAK: M Mar Ansorena, Olatz Dorai.

16:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.-Aurreko batzarreko akta onartzea.

Emalez bidalitako maiatzaren 28ko batzarreko akta onartzen dute bildutakoek aho batez.

2.-Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

2020/23 alkate ebazpena maiatzaren 26koa ez onartuz, behin behinekoz, gainbalioaren zergari lotuta ez egotea, Aizarotzko Errekaondo 6 behea etxebizitzaren salmenta, Manuel Cincuneguik egindakoa, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera eta ikusita salerosketak gainbalioa badagoela.

- 2020/24 alkate ebazpena maiatzaren 28koa baimena emanaz Yolanda Arribas Gimeno egindako eskaera Arraratsko 14. Poligonoko 326. Lursailean domo bat jartzeko.

- 2020/25 alkate ebazpena maiatzaren 29koa onartuz Ernaizu S. Coop-ek egindako eskaera, terraza haunditzeko, eraikinaren atzea aldean dagoen aparkalekuaren zati bat hartuz

- 2020/26 alkate ebazpena onartuz Eneko Yurramendik egindako eskaera 4083CBM matrikuladun autoaren klasifikazio aldatzeko eta trafikotik bidalitako informazioaren arabera karga 1530 kg-tik 560 kg-ra pasatu eta hortaz kobratu beharreko tasa 140,10 eurotik 70,13 eurora pasatzen da.

-2020/27 alkate ebazpena ekainaren 4koa Ez onartuz M Consolacion Maquedak egindako eskaera 2936 BCN matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren salbuspena onartzeko, auto horrek salbuespena arautzen duen artikuluan zehazten den potentzia gainditzen duelako.

-2020/28 alkate ebazpena ekainaren 12koa , onartuz obra baimena ematea Gaztandegi Dorrea S.A. Beramendiko 1. Poligonoko 87. Lursailean sute ahoa jartzeko ur hartune berria, aurrekontua 1.868 euro.

-2020/29 alkate ebazpena onartuz ekainaren 16an, Basaburuko Ttikiena haur eskolarako 2020-2021 ikasturterako behin behineko onartutakoen zerrenda.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.-Iharduera baimena Berueteko 11. Poligonoko 504. Lursailean txerri ustiapena jartzeko.

Alkateak azaltzen du sustatzailearen aurreko proposamena NGak atzera bota zuela, ondoan dagoen beste ustiapenera ez zituelako distantziak bermatzen. Orain ustiapen horren baja aurkeztu dute eta horrekin egokitu dute beraiek egindako proposamena eta NGak baieztatu txostena egin du.

Jende arreak epean alegazioak jarri dira, Berueteko kontzejuak eta bizilagunak jarri dituzte.

Berueteko kontzejuak urarekin arazoak sortuko direla aipatzen du ustiapen berria jartzen bada eta bizilagunak aipatzen du berak beste iharduera bat duela eta usainak iritsiko direla, gainera ere urarekin arazoak egon ahal direla eta , argi indarraren potentziarekin....

Alegazioa hauek aztertzeko bildutakoek udal arkitektoaren txostena eskatzea adosten dute.

4.- Aizarotzko UOR1 unitatearen birzatiketaren aldaketa. Behin betiko onespena.

Alkateak azaltzen du hasierako onespena eman zitzaiola apirileko batzarrean. NAON argitaratu zen eta jende aurreko epea pasa. Hasierako onespenearekin jakinarazi zitzaizen sustatzaileei behin betiko onespenerako aurkeztu behar

zutela, kontutan hartuta zedulan agertzen ez diren jabeek sinatu dutela, aipatutako dokumentua, jabe berrien sinadurekin.

Hau ekartzen dutenean aztertuko da berriro gaia behin betiko onespena emateko.

5.-Moziak.

Alkateak ekainaren 28an ospatzen den LGTBI aldarrikapen egunaren inguruko mozia irakurtzen du, ondoren transkribatzen da:

“50 urte igaro dira Stonewallen lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak, poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpena eta xantaiaren aurrean erreboltatu zirenetik: data hori mugarri bihurtu zen LGTBI pertsonen borrokan. 10 urte beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Errenteriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan LGTBI pertsonak eta kolektiboek Euskal Herriko kaleak hartzen dituzte estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatuz.

Stonewalleko gertakarien geroztik ekainaren 28an LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere.

Covid-19aren pandemiaren ondorioz, une historiko aparta bizi dugu. Mundua oso astindua izan da, gure bizimoduak hankaz gora jarri dira eta "normaltasun berri" batera itzultzeaz hitz egiten entzun dugu. Hala ere, LGTBI pertsonak bezala gure gizarte-ereduak ezartzen duen arauarekiko disidenteak direnentzat, itzulera horrek diskriminaziora eta bazterkeriara itzultzea ekar dezake. Diskurtso-esparruak, konfinamenduaren kudeaketak eta deseskaladak dagoeneko erakutsi dute zerbait berrirako bide hori betiko ikusezintasunaz eta arretarik ezaz beteta egon daitekeela, hain zuzen ere diskriminazio gehien jasaten duten kolektiboek begira.

Konfinamenduak eragin negatibo espezifikoak ekarri ditu LGTBI pertsonentzat, eta argi dago ondorengo krisi sozioekonomikoak eragin horietan sakondu baino ez duela egingo. Pandemiaren aurretik zeuden errealitateak puztu egin dira: LGTBI pertsona askok indarkeria jasan dute haientzat seguruak ez diren etxeetan bizi behar izateagatik; beste batzuek arazoak izan dituzte osasun-zerbitzu espezifikoetara edo, oro har, zerbitzu publikoetara iristeko; jazarpen handiagoa jasan dute kaleetan edo lanean, eta, oro har, beren osasuna okertu, eta estres psikologikoa eta emozionala areagotu egin da, gainerakoek baino

neurri handiagoan. Bazterkeria, prekarietatea eta diskriminazioa direla eta, ondorio negatiboak biderkatu egiten dira, adina, klasea, arraza edo egoera administratiboa bezalako beste ezaugarri batzuk kontuan hartzen ditugunean.

Erakundeetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI bezalako kolektibo zaurgarrienek eskubide horiek izan ditzaten. Covid-19aren garaian ere egin behar dugu: krisia ezin da aitzakia izan inor atzean uzteko. Garaiz gaude "normaltasun berri" hori garai berri bat izan dadin, euskal jendarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko aukera bat.

Horregatik, ekainaren 28 honetan aitortu nahi dugu LGTBI kolektibo eta pertsona ugariaren borroka luze eta ordainezina Euskal Herrian: garai zail hauetan, pertsonen eta gure herriaren emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute.

Era berean, Batzar Nagusi /Udal/Legebiltzar honek LGTBI pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi dugu. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da, bakoitzak bere giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomikoekin: mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkari eta adituekin adostu behar diren politikak.

Horregatik, Batzar Nagusi / Udal / Legebiltzar honek/hauek konpromisoa hartzen du(te) honako hau egiteko:

1) LGTBI pertsonen egoeraren diagnostikoa premiaz egitea, Covid-19ko krisiaren eraginaren ondorioz, beste erakunde, kolektibo eta gizarte-eragile batzuekin koordinatuta.

2) Egindako diagnostikoari erantzungo dion talka-plan bat bultzatzea, premiazkoenak diren ekintzak lehenetsiz, besteak beste, arlo hauetan: soziala, enplegua, osasuna, etab.

3) LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzea eta abian jartzea.

4) LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea, hala nola: administrazio-formularioetan aldaketak egitea binarismoa gainditzeko, aldagelak eta komunak egokitzea instalazio publikoetan, igerileku publikoen araudiak.

5) Jazarpen eta eraso LGTBI fobikoei erantzuteko eta arreta emateko protokoloak bultzatzea hainbat eremutan: Hezkuntza, kultura, komunikazioa, enpresa.

6) Haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzea, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetza-prozesuak, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.

7) Ikuspegi feminista duten prestakuntza-prozesuak bultzatzea, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.

8) Sentsibilizazio-kanpaina feministak egitea, Covid-19aren krisialdiaren testuinguru sozialera egokituta, epe labur, ertain eta luzean, sexu-genero dikotomiari, heteronormatibitateari eta eremu desberdinetan LGTBI pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzi buruzko kontzientzia kritikoa hartzea errazteko.

9) Adinekoen egoitzetan hainbat neurri modu koordinatuan sustatzea, LGTBI pertsonak beren aukera sexuala eta genero-aukera askatasunez bizi ahal izan dezaten, diskriminaziorik gabe, eta, besteak beste, honako hauek barne hartuta: sentsibilizazio-kanpainak, espazio binarioen berrantolaketa, eta LGTBI adineko pertsonen ekarpena ikusarazteko eta balioesteko jarduerak.

10) Pandemian zehar sortutako zaintza-sare komunitarioen, erakundeen eta LGTBI kolektiboen arteko elkarlana sustatzea, LGTBI ikuspegiarekin zaintzen lan-ildoak aktibatzeke.

11) Indarkeriaren biktima diren eta egoera oso ahulean dauden LGTBI pertsonentzako harrera-espazioak sortzea, arreta psiko-sozialeko, ekonomikoko, hezkuntzako eta bizitokietako zerbitzuak integratuz, adingabeen, migratzaileen, transexualen berariazko beharrak jasoz.

12) Zeharka, LGTBI kolektiboekin, kolektibo feministekin eta adituekin identifikatutako ekintza guztien diseinu, jarraipen eta ebaluaziorako elkarrizketa lotesle eta iraunkorreko espazioak gaitzea.

Herritarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure herri eta hirietan deitutako ekintzetan parte har dezaten

Alkateak adierazten du udalak dituen eskumenetara egokituko direla mozioaren agertzen diren eskakizunak, aipatutako mugimenduaren eskubideak bermatzeko.

Bildutakoek aho batez onartzen dute aipatutako mozioa.

6.- Batzordeen informazioa.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Ekoizleen bilera egin zen , Basaburua, Imotz eta Atetzko ordezkariekin. Leitzan bultzatu duten ekoizleen elkarlearen estatutuak aztertu eta eskualdera nola

egokitu izan zen bileraren ardatz nagusia. Hilabetero udalerrri batean eskualdeko ekoizleekin azoka egitea ere adostu zen. Uztailaren 5ean Imotzen egingen da, Atetzen irailean eta Basaburuan abuztuaren 30ean.

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Ehiza barrutia berritzeko bilera egin zen kontzejuekin eta eskaera sinatzeko azken egun bezala ostiralekoa jarri zen. Bileran adostu zen ehizaren arautegi berria kontzejuek orkatzairen ehiza kudeatzeko eta batidak direnean herrietako bideak errespetatzea.

Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

Ttikienako aurrematrikula epea bukatu zen eta 7 familiek egin zuten. Alarma egoera altxatu zenean hezkuntzatik haur eskolak irekitzeko agindua iritsi zen. Ttikienako zuzendariak famili guztiekin hitzegin zuen eta ez zituztela haurrak eramango esan zioten, hortaz hurrengo ikasturteko prestaketekin hasi ziren.

Ikasturte berrira begira zuzendariak garbitzailearen jardunaldiaren inguruan azterketa egitea eskatu zuen, COVID 19ak eskatzen dituen garbiketa protokoloengatik. Diru laguntzen moduloan, garbitzailerako jardunaldi osoa sartzen da eta egun 3 ordukoa dauka, hortaz aukera dago jardunaldia luzatzeko.

Oihanzabal ikastetxeak eskola kontseiluko bileranegin zuen eta aipatu zen hurrengo ikasturtean 63 haur egonen direla eta haurren kopuruaren jeitsiera nabarmena izanen dela hurrengo bi urtetan. Ikasturte berria irailaren 7an hasiko dira.

Informazio orokorra.

- Nafarroako Emplegu Zerbitzutik jakinarazi dute, jasotako diru laguntzaren 200 euroko itzulketa egitea dagokiola udalari. Kontutan hartuta langabetuen kontratazioko 2019ko programan, jaso zela dirulaguntza osoa aurreratua eta ondoren langile batek kontratua bukatu baino aste batzuk lehenago borondatezko baja eskatu zuela.

8.-Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 17:45 ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.